

2016 MARTXOAK 8 ERAKUNDE ADIERAZPENA

GOI BURUA: Feminismotik eraldaketa sozialera

Nazioarteko Egunak aldarri egunak dira, egoera desorekatuak agerian utzi eta eman beharreko aldaketen aldarri eta borroka egunak.

Martxoak 8a, emakume langileen borroka testuinguruan kokatzen da, 1908 urtean oihalgintzan prekarioki eta inbisibilizatuki lanean ari ziren emakume langileek grebari eutsi eta EEBBetako hainbat hiritan manifestaldiak burutu zituztenean.

Handik hona, emakume-gizon eta borroka feministari esker, asko izan dira emandako urratsak emakume eta gizonen berdintasunaren alde, baina ezin ahortzitu dugu ere, gaurko egunean zoritxarrez, leku ugarietan badela eman beharreko pausurik emakumeen eskubide oinarritzkoenak eskuratzeko bidean.

Gertukoan ere, Euskal Herrian bertan, lege eta araudiek berdintasunaren aldeko marko orokorra ezarria badute ere, badugu eman beharreko urrats ugari. Izan ere, berdintasun faltsuaren diskurtsoa hedatzen dihardu, eta honek, berdintasunaren alde aktibatu beharreko neurriak moteldu besterik ez ditu egiten, egoera irreal bat irudikatuz.

Finantza krisiak eragindako murrizketek lehenik, eta ustez bertatik ateratzeko hartutako hainbat neurri ondoren, azken urteotako jazarpen bortitzena eragin dute jendarteren eskubide oinarritzkoenen galera orokorrean, eta bereziki emakumeen eskubideengan. Eta horrela, diskurtso eta praktiken arteko kontraesanak agerikoak ari dira izaten ari, parekidetasunaren, ekitatearen eta berdintasunaren esparruan.

EHBildutik argi dugu egunerokoa eta guztion lana dela berdintasun erreala lortzeko lanari eustea, erakundeetan eta jendarteetan, lana eta enplegua baldintza duinetan banatua izan dadin, zaintza lanak partekatuak izan daitezten, afektibitatea eta sexualitatea modu anitzean, libreki eta seguru bizi ahal izan dadin, estereotipoak zein rola gaindituak izan daitezten, eraso sexual eta sexistak desagertu daitezten, prekaritateak eta pobrezia emakume izena eduki ez dezaten, erabakiguneetan aritzeko aukera berak sor daitezten, besteren artean.

Eta hau guztia lortzeko, jendarte eredu berritua eraikitzeko, neurri normatibo, tekniko eta ekonomiko ausartak hartu behar dira, egungo murrizketak alboratuz.

Horregatik, 2016ko martxoak 8 honetan, Deban ere badelako zer eginik, ondorengo ebazpen proposamena egiten dugu, udal batzak onartu dezan.

EBAZPEN PROPOSAMENA

- 1.- Debako Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du berdintasun aurrekontua errespetatzeko urtero, 2017tik 2019ko aurrekontu partida orokorretan.
- 2.- Debako Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du herriko kale izendegia errebisatu eta emakume izenak ezartzeko.
- 3.- Debako Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du sortzen dituen idazki guztietan hizkuntza ez sexista eta inklusiboa erabiltzeko.
- 4.- Debako Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du diru-laguntzetan genero klausulak ezartzeko.
- 5.- Debako Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du Biolentzia Matxistaren kontrako protokoloa landu eta abian jartzeko, herriko emakume eta talde feministekin elkarlanean.
- 6.- Debako Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du herriko puntu beltzen mapa osatzeko, herriko emakume eta talde feministekin elkarlanean.
- 7.- Debako Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du herriko jai eta ospakizunetan parte hartze parekidea landu eta sustatzeko, herriko taldeekin elkarlanean.
- 8.- Debako Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du udal eskumeneko sail guztietan generoa lantzeko, horretarako neurri batera bat aurkeztuko duelarik legegintzaldian zehar garatzeko.
- 9.- Debako Osoko Bilkurak, dei egiten du emakume eta talde feministek deitutako mobilizazioetan parte hartzeko.